

Nicolasa Pradera Mendibe



Udalerrria: Mallabia (Bizkaia)

Jaiotze-data: 1870-12-07

Lanbidea: Sukaldaria

Gaztea zela, Gaitan de Ayala familiaren etxean sartu zen lan egitera. Familia honen alaba bat Donostiara ezkondu eta hara joan zen Nicolasa sukaldeaz arduratzeko.

Narciso Dolagarai Pikabea harakina ezkondu eta 1912an Aldamar kalean *Casa Nicolasa* jatetxe ospetsua ireki zuten. Laster ospetsu bilakatu zen.

1932an Maria Urrestarazuri jatetxea saldu eta seme-alabekin batera Kontxa parean "Andia" jatetxea ireki zuen. Gerra Zibilaren ondoren, 1940an, Madrilera joan eta bertan "Nicolasa" jatetxea ireki zuen.

Nicolasa Pradera batez ere ezaguna da idatzi zuen sukaldaritzaren liburuagatik: *La cocina de Nicolasa*. Ez da edonolako liburua. 1933. urtean egin zen lehen argitarapena eta geroztik 19 alditan berrargitaratu da, azken argitarapena, hogeigarrena, 2001. urtekoa da.

Iturria: [wikipedia](https://es.wikipedia.org/wiki/Nicolasa_Pradera_Mendibe)

